BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA ZENTRALA TABERNAREN ZERBITZU EMAKIDA KONTRATATZEKO, IZAPIDETZE ARRUNTA ETA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ

I.- XEDEA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

1. KLAUSULA. KONTRATUAREN XEDEA ETA KALIFIKAZIOA

Kontratuaren xedea da Berriatuko Udalaren jabetzekoa den Zentrala tabernaren zerbitzu-emakida egikaritzea.

Kontratu hau jarraian adierazitako Kodearen arabera kodifikatuta dago; kontratu publikoen Hiztegi komuna onesten duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2195/2002 zenbakidun Erregelamendua eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren kontratu publikoen prozedurei buruzko –CPVaren berrikuspenari dagokionez– 2004/17/CE eta 2004/18/CE Zuzentarauak aldatzen dituen Batzordearen 2007ko azaroaren 28ko 213/2008 zenbakidun Erregelamenduan jasotako Europako Kontseiluaren CPV sailkapenaren nomenklaturari dagokiona:

55410000-7 Tabernak kudeatzeko zerbitzuak

2. KLAUSULA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Definitutako kontratuak administrazio-kontratuaren kalifikazioa du, Sektore Publikoko eta administrazioko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean SPKL) 15. artikuluaren arabera.

Baldintza tekniko partikularren agiriak nahiz administrazio-klausula partikularren agiriak kontratu-izaera dute eta enpresa esleipendunak sinatu egin beharko ditu kontratua formalizatzeko ekitaldian, ados dagoen frogagarri.

Alderdiek esanbidez jarraitu beharko diote agiri honetan eta bere baldintza tekniko partikularretan ezarritakoari. Agirietan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauetan xedatuta dagoenak arautuko du kontratua:

1.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea; horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

2.- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, sektore publikoko kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, Sektore Publikoko Kontratuen Legeari aurka egiten ez dioten guztian eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen xedapen indargabetzaileak ukitzen ez duen guztian.

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

3.- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

3. KLAUSULA. INFORMAZIOA ETA KONTRATATZAILEAREN PROFILEAN SARTZEKO MODUA.

Lizitazio hau erregulazio harmonizatuari lotuta ez dagoenez, lizitazio-iragarkia Berriatuko Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, Eusko Jaurlaritzaren kontratazio publikoaren plataforman.

SPKLaren 63. artikuluaren arabera, ondore horietarako beharrezko dokumentazioaren bitartez kontratu-jarduerarako sarbide publikoa eta gardentasuna ziurtatzeko helburuz, ondoren adierazten den helbidearen bitartez egin daiteke Berriatuko Udalaren kontratatzailearen profilerako sarbideko publikoa: http://www.berriatua.org/eu-ES/Udala/Kontratatzaile-profila/Orrialdeak/default.aspx

4. KLAUSULA. JAKINARAZPENAK.

Bitarteko elektronikoak erabiliko dira jakinarazpen eta komunikazioetarako, kontratatzailearen profilean argitaratuta zein lizitatzaileak emandako helbide elektronikora jakinarazpena bidalita, edo jakinarazpen elektronikoz udalaren egoitza elektronikoaren bidez.

5. KLAUSULA. KONTRATAZIO-ORGANOA

Udal Osoko bilkura da kontratazio-organoa, horretarako izendatutako Kontratazio-mahaiaren beharrezko laguntzarekin; kontratazio-mahai horrek, egoki irizten dion aholkularitza teknikoa izango du.

6. KLAUSULA. KONTRATAZIO-MAHAIA

2020ko apirilaren 16ko udal osoko bilkurak hartutako erabakiari jarraikiz, kontratazio-mahaia honela osatuta egongo da.

- Lehendakaria: Alkatea, Jon Arriola Espilla; eta ordezkoa, Julene Garate Calzacorta (zinegotzia).
- Mahaikideak:
  - udal idazkari/kontu-hartzailea. Andoni Gartzia Arruabarrena
  - udal administraria. Izaskun Irusta Mandiola.

II.- KONTRATUA

7. KLAUSULA. AURREIKUSITAKO BALIOA.

Kontratuaren aurreikusitako balioa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 101. artikuluan aurreikusitakoaren arabera ezarri dena, 480.000,00 euro da (BEZik gabe).

Egin den ikerketa ekonomikoaren arabera, 60.000 euro/urteko fakturatuz gero

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

gastu guztiak estalita geratuko ziren eta hortik gora aterako litzatekeena errentariaren onura izango litzateke. Horregatik, kontratuaren balio zenbatetsia 480.000€etan baloratu da, luzapen guztiak kontuan hartuta.

8. KLAUSULA.- LIZITAZIO-AURREKONTUA (KANONA)

Kontratistak udalari ordaindu beharreko gutxieneko kanona 100,00 euro/hilero, BEZik gabe, (121,00 euro/hilero BEZ barne) izango da. Urtebeteko gutxieneko kanona, bera, 1.200,00 eurokoa izango da BEZ gabe (1.452,00 euro BEZ barne).

Ustiaketa honetatik eratortzen diren gastu guztiak esleipendunak bere gain hartuko ditu (era guztietako zergak, hornidurak eta zerbitzuak).

Behin kanona ordainduta, tabernaren kudeaketak sortuko dituen irabaziak eta galerak, modu esklusiboan, esleipendunaren gain eta kargu izango dira.

Taberna-jangelaren ustiapenaren etekin ekonomikoak esleipendunaren gain eta bere galorde izango dira. Berriatuko udalak ez du esku hartuko, inolako eratan, ustiapenaren finantzaketan; eta ez dio esleipendunari gutxieneko diru-sarrera edo etekinik ere ziurtatuko.

Berriatuko udala ez da erantzule izango hornitzaileei ez bazaie ordaintzen, ez eta hirugarren batzuek instalazioetan egin ditzaketen hondamen edo lapurretena ere.

Kontratuaren osotasunerako lizitazio aurrekontua, luzapenak barne, 9.600,00 eurokoa BEZik gabe (11.616,00 euro BEZ barne) izango da. Horietatik 4.800,00 euro BEZrik gabe, (5.808,00 euro BEZ barne) kontratuaren iraupenari dagokio, eta gainerakoa luzapen guztiei.

9. KLAUSULA.- ORDAINKETA

Ordainketa, zerbitzua ematen den hilabetea amaitu eta hurrengo hilabeteko lehenengo eta bosgarren egunen artean egingo da Berriatuko udalaren kontu korrontean. Udalak hilero jaulkiko du kontratistak ordaindu beharreko kanonaren ordainagiria edo faktura.

Esleipendunak, prezioaz gain, dagozkion udal tasak ordaindu beharko ditu.

10. KLAUSULA. KONTRATUAREN IRAUPENA.

Kontratuak 4 urteko iraupena izango du, kontratu administratiboa sinatzen den egunetik kontatzen hasita. Sinatze hori zerbitzuak ematen hasi aurretik egingo da.

Kontratua beste 4 urtez luzatu ahal izango da urtez urte, gehienez 8 urterako.

11. KLAUSULA. KANONAREN BERRIKUSPENA.

Esleipendunak kontratua formalizatu eta 12 hilabetetara, aurreko urte osoko galdu-irabazien kontua aurkeztu beharko du udalean.

Kontu-irabazien kontuak aurreko urteko irabazi garbia 1.200,00 euro edo gehiagokoa izan dela adierazten badu, izandako irabazi garbien %20aren

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

zenbatekoa gehituko zaio lizitazioan eskainitako kanonari. Kanon berria hurrengo hilabetetik hasi eta urtebetez aplikatuko da. %20ko ekarpen gehigarri hori proportzionalki banatuko da 12 hilabeteetan.

Prezioen berrikuspeneko aldi batean, esleipendunak 1.200,00 euro baino gutxiagoko irabazi garbiak ziurtatzen baditu galdu-irabazien kontuetan, lizitazioan eskainitako kanona mantendu edo berrezarriko zaio esleipendunari.

III.- LIZITATZAILEA

12. KLAUSULA. KONTRATATZEKO GAITASUNA.

Pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke kontratu honen adjudikaziodun, Espainiakoak nahiz atzerritarrak izan, beren izenean edo aldi baterako enpresa-elkarte gisa, baldin eta jarduteko erabateko gaitasuna badute, Administrazioarekin kontratuak egiteko debeku edo bateraezintasunik ez badute (2017ko SPKLren 85. artikulua) eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen badute.

Gainera, pertsona fisikoak edo juridikoak izan, enpresa adjudikaziodunen helburu edo jarduerak harreman zuzena izan behar du kontratuaren xedearekin, eta haien antolaketan elementu pertsonal eta material nahikoak egon behar dute kontratua behar bezala gauzatu ahal izateko.

Halaber, enpresaburuek kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa eskaintzeko beharrezkoa den enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala izan behar dute.

Europako Erkidegokoak ez diren atzerriko enpresek 2017ko SPKLren 68. artikuluan ageri diren eskakizunak ere bete behar dituzte.

13. KLAUSULA. GAITASUNA ETA KAUDIMENA.

Ondorengo alderdiak egiaztatu beharko dituzte lizitatzaileek:

1.- Jarduteko gaitasun osoa dutela.

Gaitasun juridikoa eta jardutekoa duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, SPKLren 71. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

Halaber, beren kabuz nahiz baimendutako pertsona batek ordezkaturik egin ahal izango dute hori, horretarako berariaz emandako ahalorde askietsia erabiliz. Pertsona juridikoa bertako kideren batek ordezkatzen duenean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Kasu batean nahiz bestean, arestian aipatutako kontratatzeko debekuek ordezkariari ere eragingo diote.

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

Pertsona juridikoa bada, kontratuaren prestazioak beren estatutuen edo eratze-arauen arabera berezko dituzten helburu, xede edo jarduera-esparruen barruan sartzen direla egiaztatu beharko du.

Enpresariek, halaber, kontratu hau burutzeko eska daitekeen enpresa-gaitasuna edo profesionala izan beharko dute.

Enpresari batzuk kontratazioan batera parte hartzeko interesatuta daudenean, aldi baterako enpresa elkartea sortu ahal izango dute horretarako. Esleipena bere alde egiten den arte ez da beharrezkoa izango elkarte hori eskritura publikoaren bidez formalizatzea. Kasu horretan, enpresariak modu solidarioan erantzungo dute Administrazioaren aurrean, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu ahaldun bakarra izendatu beharko dute, eta horrek kontratutik eratortzen diren eskubideak gauzatzeko eta obligazioak betetzeko adinako ahalmenak izango ditu, kontratua amaitu arte.

2.- Ez dutela betetzen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratatzeko debekua dakarren inguruabarrik.

3.- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituztela.

4.- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:

- Honako dokumentazio hau aurkeztuta:

Arrisku profesionalengatiko kalte ordainak jasotzen dituen aseguruaren egiaztapena. Aseguruaren zenbatekoa 6.000 eurokoa izango da gutxienez.

5.- Kaudimen tekniko eta profesionala

- Honako dokumentazio hau aurkeztuta:

  a.- Elikagaien manipulatzaile txartela behar duten langileek hori badutela egiaztatu beharko dute prestazioa hasi aurretik.

  b.- Ostalaritzan gutxienez urtebeteko esperientzia egiaztatu beharko da, arduradun edo zerbitzari gisa, azken hiru urteetan. Gehienez azken hiru urteetan eginiko zerbitzu nagusien zerrenda bat aurkeztuko da; zerbitzu horiek kontratuaren xede direnen berdinak edo antzekoak izan beharko dute.

Aldi baterako enpresa-elkartearen kasuan, aldi baterako elkartearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala erabakitzeko, hura osatzen duten bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak batuko dira.

IV.- ESLEITZEKO PROZEDURA

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

14. KLAUSULA. ESLEIPENAREN TRAMITAZIOA ETA PROZEDURA

Prozeduran arrunta eta ireki bidez esleituko da kontratua.

Proposamenak baloratzeko eta kontratua esleitzeko, irizpide ugari erabiliko da, kalitate-prezio erlaziorik onenaren arabera. Kalitate-prezio erlazio hori kontratuaren xedearekin zuzenean lotutako irizpide ekonomiko eta kualitatiboen arabera ebaluatuko da, SPKLaren 145. artikuluaren eta honako Plegu Administratiboaren edukiaren arabera.

15. KLAUSULA. PUBLIZITATEA.

Administrazio Publikoen kontratuak esleitzeko lizitazio-iragarkia Eusko Jaurlaritzaren kontratazio-plataforman kokatuta dagoen Berriatuko Udalaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da, eta bertan sartzeko 3. klausulan xedatzen dena kontuan izango da.

16. KLAUSULA. ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK.

Honako hauek dira lehiaketa esleitzeko oinarritzat balio behar duten irizpideak:

	ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK:	Puntuak	Zer gutun-azaletan egiaztatzen den
1	Proposamen ekonomikoa	0-30	C gutun-azala
2	Ustiaketa proiektua	0-20	B gutun-azala
3	Gaitasun profesionala	0-30	C gutun-azala
4	Egoera pertsonala	0-20	C gutun-azala
5	Hizkuntza gaitasuna	0-20	C gutun-azala

1.- Proposamen ekonomikoa: 0-30 puntu

Honako formula erabiliko da eskaintza ekonomikoa baloratzeko:

$$B = \frac{\text{baloratu behar den eskaintza}}{\text{eskaintza onenaren prezioa}} \text{ x } 30$$

2.- Ustiaketa proiektua: 0-20 puntu.

Alderdi hauek balioetsiko dira:

a) Antolaketa (gehienez 10puntu)

- Tabernaren antolaketa eta ordutegia. Gehienez 5puntu.

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

-Instalazioen garbiketari dagokionez plegu teknikoen 5. puntuan zehazten diren derrigor egin beharreko lanen antolaketa, gehienez 5 puntu.

b) Menu eskaintza: Lizitatzaileek eskaintzen dituzten produktu eta jakiak.. Gehienez 5 puntu.

c) Produktuen jatorria: Kontuan hartuko da menuak egiteko produktu jangarriak non erosten diren. (Gehienez 5 puntu).

3.- Gaitasun profesionala.- 0-30 puntu.

a) IKASKETA TITULUAK (10 puntura arte).

-Sukaldaritzan edo errestaurazioko arloko unibertsitate tituluak. 5,00 puntu.

-Lanbide-hastapeneko ikastegietan egindako ikasketen goi mailakoa titulazio ofiziala. 4,00 puntu.

-Lanbide-hastapeneko ikastegietan egindako ikasketen erdi mailako Sukaldaritza edo errestaurazio prestakuntza titulazio ofiziala. Eta -Sukaldaritza edo errestaurazioko 3. mailako Gaitasun ziurtagiriek 3,00 puntu.

-Sukaldaritza edo errestaurazioko 1 eta 2. mailako Gaitasun ziurtagiriek. 2,00 puntu.

-Erakunde publiko edo ofizialek emandako edo homologatutako 25 ordutik gorako Sukaldaritza edo errestaurazio prestakuntza jarduera bakoitzarengatik, 0,30 puntu.

b) LANBIDE ESPERIENTZIA (20 puntura arte).

8,00 puntu arte ostalaritza establezimenduetan egindako kudeaketa lanengatik (taberna eta kafetegia edo antzeko kategoria). 3,00 puntu lan egindako urte oso bakoitzarengatik.

4,00 puntu arte langileek ostalaritza establezimenduetan egindako zerbitzari, sukaldari, tabernari edo antzeko lanengatik (taberna eta kafetegia edo antzeko kategoria). 2,00 puntu lan egindako urte oso bakoitzarengatik.

Baldintza agiri honetako 15.3.b) artikuluan azaltzen den kaudimen tekniko eta profesionala bermatzeko behar den gutxienezko urtebeteko esperientzia ez da kontuan hartuko baloraketa egiteko garaian.

4.- Egoera pertsonala.- 0-20 puntu.

Esleipendunaren edo zerbitzua prestatzeko hark kontratatuko duen pertsonaren gaineko informazioa aurkeztu beharko da bere egoera pertsonala baloratu ahal izateko.

a) ENPLEGU EGOERA (10 puntura arte):

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

Honela banatuta

- 6 hilabete arteko langabezia – 5,00 puntu.
- 6 hilabete eta urtebete arteko langabezia - 7,50 puntu.
- Urtebete baino gehiago langabezian – 10,00 puntu.

b) ERROLDAREN ARABERA (10 puntura arte):

- Berriatuan erroldatuta- 10,00 puntu.
- Eskualdean erroldatuta - 5,00 puntu.

5.- Hizkuntza gaitasuna.- 0-20 puntu.

Esleipendunaren hizkuntza gaitasunari buruzko informazioa aurkeztu beharko da euskararen ezagutza-maila baloratu ahal izateko.

- C2 titulua (4. Hizkuntz eskakizuna) edo baliokidea: 20 puntu.
- C1 titulua (3. Hizkuntz eskakizuna) edo baliokidea: 10 puntu.
- B2 titulua (2. Hizkuntz eskakizuna) edo baliokidea: 5 puntu. .

17. KLAUSULA.- BERMEAK

Behin-behineko bermea: Lizitazio honetan parte hartzeko, ez da behin-behineko bermea jartzerik eskatzen.

Behin betiko bermea: Kontratu Legearen 107.3 artikuluari jarraikiz, hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko, kontratuaren esleipendunak esleitze prezioaren % 5eko behin betiko bermea jarri behar du.

Berme hori jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, kontratuaren esleipenaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik kontatzen hasita, Udal Diruzaintzan jarri beharko da; eskudirutan jarriko da edo kontratu legearen 108. artikuluan xedatzen den edozein baliabide erabiliz.

Behin betiko bermea Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuen araberakoa izango da. Kontzeptu horien artean bilduta dago kontratistak kontratuaren xede diren prestazioen egikaritze okerraren ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galerak ordaintzeko betebeharra (SPKLren 196. artikuluan aurreikusten dena) ez betetzea.

Kontratu-aldaketaren ondorioz kontratuaren prezioa aldatu egin bada, bermea egokitu egingo da enpresaburuari aldatzeko erabakia jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita 15 eguneko epean, betiere aldaketaren ondoriozko kontratuaren prezio berriarekiko proportzio egokia izan dezan, eta hala egin ezean kontratua suntsiarazteko kausa izan daiteke. Zehapenak edo kalte-ordainketak gauzatzen diren datatik zenbatzen hasi eta epe berdinean, esleipendunak bermea berrezarri edo handitu beharko du dagokion zenbatekoan, eta hala egin ezean kontratua suntsiarazteko kausa

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

izan daiteke. Bermeak itzultzeko, kontratu legearen 111 artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan, eta kontratuaren likidazioa onartu ondoren eta bermearen epea igaro ondoren antolatuko da, beti ere erantzukizunik ez badago.

V.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

18. KLAUSULA. PROPOSAMENEN EZAUGARRIAK.

1. Lizitatzaile bakoitzak ezingo du aurkeztu proposamen bat baino gehiago. Ezingo du beste batzuekin aldi baterako batuta prestatutako proposamenik ere izenpetu bere aldetik proposamenen bat aurkeztu badu, edo ezingo du aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan azaldu. Arau horiek urratzen dituen lizitatzaileak izenpetutako proposamen guztiak baztertuko dira.

2. Proposamenak aurkezteak berekin dakar plegu honen zein preskripzio teknikoen pleguaren klausuletan jasotzen den eduki osoa baldintzarik gabe onartzea, inolako salbuespenik edo erresalburik gabe.

3. Ez da onartuko eskaintza argi eta garbi ezagutzea eragozten duten omisioak, hutsak edo ezabaketak dituen proposamenik.

19. KLAUSULA. PROPOSAMENAK AURKEZTEA.

Proposamenak aurkeztuko dira Udalaren erregistro telematikoan lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunaren ondorengo egunetik kontatzen hasi eta 26 lan- eguneko epearen barruan.

Proposamenak http://www.berriatua.org/eu-ES/Udala/Kontratatzaileprofila/Orrialdeak/default.aspx helbidean aurkitzen den aplikazioaren bitartez aurkeztu beharko dira.

Ez dira onartuko adierazitako modu, epe eta lekuan aurkezten ez diren proposamenak.

20. KLAUSULA.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzaileek honako dokumentazio honen arabera aurkeztu beharko dituzte beren eskaintzak:

A GUTUN-AZALA	DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA
B GUTUN-AZALA	PROPOSAMEN TEKNIKOA
C GUTUN-AZALA	ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA BALIOZKO JUDIZIOEN MENPE EZ DAUDEN IRIZPIDEAK

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko du udaletxeko erregistroan, eta proposamena erregistratzen denean honako hau adierazi beharko da kontzeptuan: ZENTRALA TABERNAREN ZERBITZU-EMAKIDA.

Gutun-azal bakoitzeko dokumentazioa “pdf” dokumentu batean sartu beharko da, eta ireki ahal izateko pasahitz bat ezarri daiteke; kontratazio-mahaiari pasahitz hori adierazi beharko zaiona gutun-azala irekitzeko egintza publikoa hasi baino 5 minutu lehenago.

Ondoren adierazten den dokumentazioa jasoko beharko du gutun-azal bakoitzak:

A. Gutun-azala- Dokumentazio Administratiboa:

1. Kontratazioko europar agiri bakarraren inprimakiaren eredua beteko duen erantzukizunpeko adierazpena zeina ondoko helbide elektronikoan eskuragarri dagoen https://ec.europa.eu/tools/espd/filter?lang=es edo Plegu honetan jasotzen den erantzukizunpeko adierazpena (I. Eranskina); adierazpen hori sinatuta egon behar da, eta dagokion identifikazioarekin, eta honako hau adierazi behar du lizitatzaileak:

a. Exijitzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzen dituela, kontrataziorako europar agiri bakarraren inprimaki bakarraren arabera plegu hauek ezartzen dituen baldintzetan.

b.- Pertsona juridikoa bada, sozietatea baliozko moduan eratuta dagoela eta, sozietatearen helburuaren arabera, lizitaziora aurkez daitekeela, eta adierazpenaren sinatzaileak dagokion ordezkagarritasuna duela proposamena aurkezteko.

c. Bere kabuz edo hedapenez kontratatzeko debekurik ez duela SPKLaren 71.3 artikulua aplikatzearen ondorioz.

2. Enpresariak, SPKLaren 75. Artikuluaren arabera, beste enpresa batzuen kaudimenera edo bitartekoetara joko balu, horietako bakoitzak ere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, eta adierazpen horretan kasu horietarako beharrezko informazioa jaso beharko da, kontrataziorako europar agiri bakarraren inprimaki normalizatuaren arabera.

3.- Jakinarazpenak egiteko posta elektroniko helbide bat.

4. Hainbat enpresari aldi baterako enpresa-elkarte batean elkartuta aurkezten badira, enpresa-elkarte horretan parte hartzen duen enpresa bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpen bana aurkeztu beharko da, eta adierazpen horietan kasu horietarako kontrataziorako europar agiri bakarraren inprimakian eskatzen den informazioa jaso beharko da (IV. Eranskina).

Aurreko paragrafoan aipatutako adierazpenez gain, aldi baterako enpresa-

elkarteetan aurkezten diren enpresariek betebeharrak solidarioki bete beharko dituzte, eta elkartearen ordezkari edo apoderatu bakarra izendatu beharko dute, eskubideak erabiltzeko eta kontratuaren ondoriozko betebeharrak kontratua deuseztatu bitartean betetzeko behar adinako ahalordeak dituena; horrez gain, ahalorde mankomunatuak ere egon daitezke, zenbateko handiko kobrantza eta ordainketetarako eman ditzaketenak. Halaber, enpresa-elkartea eratzen dutenen izenak eta inguruabarrak, eta horietako bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dute, bai eta kontratuaren esleipendun izanez gero aldi baterako enpresa-elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere.

5. Lehenengo puntuan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenaz gain, atzerriko enpresek adierazpena aurkeztuko dute, zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen gorabeheretarako, Espainiako edozein lege-arlotako Epaitegiren eta Auzitegiren jurisdikziopean jartzen direla esanez, eta, hala balegokio, dagokiekeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko eginez.

Kontratazio mahaiak frogagiri guztiak eta batzuk aurkez ditzatela eskatu ahal izango die lizitatzaileei, adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari buruzko arrazoizko zalantzak daudenean, prozedura behar bezala garatzeko beharrezkoa denean eta, nolanahi ere, kontratua esleitu baino lehen.

Aurreko ataletan aipatutako gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari dagozkion inguruabarrak eskaintzak aurkezteko epemugan bete beharko dira, bai eta kontratua formalizatzen den unean ere.

B gutun-azala.- Ustiapen-proiektua:

Alderdi hauek balioetsiko dira:

a) Antolaketa (gehienez 10puntu)

- Tabernaren antolaketa eta ordutegia. Gehienez 5puntu.

-Instalazioen garbiketari dagokionez plegu teknikoen 5. puntuan zehazten diren derrigor egin beharreko lanen antolaketa, gehienez 5 puntu.

b) Menu eskaintza: Lizitatzaileek eskaintzen dituzten produktu eta jakiak. Gehienez 5 puntu.

c) Produktuen jatorria: Kontuan hartuko da menuak egiteko produktu jangarriak non erosten diren. (Gehienez 5 puntu).

C gutun-azala: Eskaintza ekonomikoa eta balio-judizioen mende ez dauden irizpideak:

c.1. Proposamen ekonomikoa

Proposamen ekonomikoak II. eranskinean jasotzen den ereduarekin bat

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

etorri behar du erabat.

Hizkiz eta zenbakiz idatzitako zenbatekoen artean kontraesanik baldin badago, eskaintza baztertu egingo da, baldin eta ezin bada ziurtasunez zehaztu bietako zein den eskainitako benetako prezioa.

Proposamena enpresa-talde batek egiten duenean, talde hori osatzen duten enpresa guztiek sinatu beharko dute proposamena, zuzenean edo ordezkari bitartez.

c.2. Gaitasun-profesionala

Gaitasun-profesionalaren eskaintza III. eranskinean jasotzen den ereduarekin bat etorri beharko da.

Ikasketa tituluei dagokienez, tituluen kopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira. Lanbide esperientzia egiaztatzeko, aldiz, lan-ibilbidearen ziurtagiria aurkeztuta egiaztatuko da.

c.3. Egoera pertsonala

Egoera-pertsonalaren eskaintza III. eranskinean jasotzen den ereduarekin bat etorri beharko da.

Enplegu egoera Lanbidek egingo duen ziurtagiria aurkeztuta egiaztatuko da. Erroldari dagokionez, Berriatuko Errolda ziurtagiria ez da aurkeztu beharko baina bai eskualdeko errolda egiztatu nahi bada, dagokion eskualdeko herriko errolda-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

c.4. Hizkuntza-gaitasuna

Hizkuntza-gaitasunaren eskaintza III. eranskinean jasotzen den ereduarekin bat etorri beharko da.

Hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeko, dagokion Europako Erreferentzia Markoaren euskararen ahozko trebetasun maila ziurtatzen duen agiriak aurkeztu beharko dira.

VI.- PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

21. KLAUSULA.- PROPOSAMENAK IREKITZEA, AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK BALIOESTEA.

Kontratu hau **PROZEDURA IREKIAREN** bidez esleituko da.

A eta B gutun-azalen dokumentazioaren kalifikazioa

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik gehienez 20 eguneko epearen barruan irekiko dira A eta B gutun-azalak.

Kontratazio-organoak, irekierarako ekitaldi publikoaren data eta ordua argitaratuko ditu kontratatzailearen profilean, dagokion aurrerapenarekin.

A eta B eskaintzen pdf. dokumentuei irekitze-kodea jarri badin bazaie, A eta B gutun-azalak ireki baino gutxienez 5 minutu lehenago, dagokion pdf dokumentuaren irekitze-kodea jakinarazi beharko diote Mahaiari eskaintza-egileek.

Pleguen irekitze-egintza horretan, telematikoki jasotako dokumentazioa kalifikatuko da, baita erkatu ere.

Erkatzea gauzatutakoan, A eta B kartazaleko dokumentazioa udal-idazkariari bidaliko zaizkio dagozkion txostenak jaulkitzeko. Dokumentazioan akats materialak daudela ikusten bada, hiru egutegi-eguneko epea emango da adierazitako akatsa konpontzeko, eta, hala badagokio, bost eguneko epea argibideak edo dokumentu osagarriak aurkezteko.

Epe horiek telematikoki jakinaraziko dira; baita lizitazio honetarako emandako helbide elektronikoan ere; eta bidaltzen diren egunaren ondorengo egunetik aurrera konputatzen hasiko dira.

Horretarako emandako epean enpresak A gutun-azaleko gabeziak osatzeko eskatutako agiriak aurkezten ez baditu, prozesutik baztertuko zaio. B gutun-azalekoak zuzentzen ez baditu, berriz, dagokion irizpidearen araberako baloraziorik ez zaio egingo lizitatzaile horren eskaintzari.

Eskaintzak ebaluatzerakoan, 19. klausulan adierazitako esleitzeko irizpideak kontuan izango dira.

Proposamen hauek ez dira onartuko.

- A gutun-azalean eskatzen diren agiri guztiak aurkezten ez dutenak, eta horiek zuzentzeko udalak emandako 3 lanegunetan, zuzendu ez direnak.

- Kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo arau-hausteak direla-eta Administrazioak eskaintza kontuan hartzeko ezinbestekoa duena garbi ikusteko biderik ematen ez dutenak, eta badira zuzendu edo argitu horretarako udalak ematen dien hiru laneguneko epean.

- Proposamen bat baino gehiago aurkezten duten lizitatzaileen eskaintzak.

C gutun-azalean sartutako eskaintzak irekitzeko ekitaldi publikoa.

A eta B gutun-azaletako dokumentuen kalifikazioa eta negoziazio-fasea bukatutakoan, Mahaiak kontratistei deialdia egingo die “Eskaintza ekonomikoa

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

eta balio-judizioei lotu gabeko irizpideak" izeneko C gutun-azala irekitzeko ekitaldi publikora bertaratzeko.

Kontratazio-organoak, irekierarako ekitaldi publikoaren data eta ordua argitaratuko ditu kontratatzailearen profilean, dagokion aurrerapenarekin.

C gutun-azaletako eskaintzen pdf. dokumentuei irekitze-kodea jarri badin bazaie, C gutun-azala ireki baino gutxienez 5 minutu lehenago eskaintzaileek C gutun-azalari dagokion pdf dokumentuaren irekiera-kodea adierazi beharko diote Mahaiari.

Ekitaldi publikoak ondorengo urrats hauek izango ditu:

- Lehenik, A eta B gutun-azaleko ebaluazioaren emaitza jakinaraziko zaie bertaratutakoen, hau da, lizitatzaileren bat kanpo gelditu den eta bakoitzak lortutako puntuazioa. Baita negoziatu den lizitatzaileen izena ere.

- Jarraian, kontratazio-mahaiak C gutun-azalak irekiko ditu, hain zuzen ere, onartuta lizitatzaileen eskaintza ekonomikoa eta baliozko judizioen menpe ez dauden irizpideak:

- Bilera itxian, kontratazio mahaiak eskaintzen puntuazioak banatuko ditu, aurrez lan-unitate guztientzako proposamenak jasotzen ez dituzten eskaintzak baztertuz, baita lizitazio prezioa gainditzen dutenek ere. Eta ondoren, esleipen-proposamena luzatuko dio kontratazio-organoari, kasu honetan, tokiko gobernu batzarrak.

Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak lizitatzaileari eskatu ahal izango dio aurkeztutako eskaintza argitzeko, edo, idazkuntzan akats material nabaririk badago, zuzentzeko, betiere tratu-berdintasunaren printzipioa errespetatuz eta eskaintzaren terminoak inondik inora aldatzeko aukerarik gabe. Jardun guztiak administrazio-espedientean jasota geratuko dira (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 95. artikulua).

Kontratazio-mahaiak egiten duen esleitzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako enpresaburuaren alde, eta ez ditu eskubide horiek eskuratutako administrazioari dagokionez, kontratazio-organoaren erabakiz kontratua esleitzen ez zaion bitartean.

Esleipena egin baino lehen kontratazio-organoak kontratua sinatzeari uko egiten badio edota prozeduran atzera egitea erabakitzen badu, lizitatzaileei ebazpen arrazoitua bidaltzeko jakinarazpenean lizitazio-gastuengatik ordainduko den konpentsazioa adieraziko du.

Interesdunei komunikazioa telematikoki egingo zaie udalaren egoitza elektronikoaren bidez baita lizitazio honetarako emandako helbide elektronikoan ere.

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

VII.- ESLEIPENA

22. KLAUSULA. ESLEIPENA.

Proposamenak irekitzen diren egunetik kontatzen hasi eta hilabete bateko gehieneko epearen barruan kontratazio-organoak esleipena erabakiko du, eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta 15 eguneko epearen barruan kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Esleipenaren ebazpenean kalitate-prezioa erlazioan eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko zaio dokumentazioa aurkeztea eta ondorengo klausulan adierazitako aurretiazko betekizunak egiazta ditzala, horretarako 10 egun balioduneko epea emanez.

Adierazitako epean ez badu eskatutakoa egoki bete, lizitatzaileak eskaintza lehiaketatik kendu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio (BEZik gabe) zigor gisa, lehenik eta behin behin-behineko bermearen kontura horrelakorik eratu bada, SPKLren 71. artikuluko 2. idatz-zatiaren a) letran ezarritakoa alde batera utzi gabe.

Aurreko paragrafoan adierazitako kasuan, dokumentazio berdina eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenari jarraikiz.

Kontratazio-organoak lizitazioa esleitzeke deklaratu ahal izango du, hala dagokionean, kontratazio-mahaiaren proposamenez, klausulen agirian biltzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat ez dagoenean.

23. KLAUSULA. AGIRIAK AURKEZTEA ETA ALDEZ AURRETIKO BALDINTZAK EGIAZTATZEA

1. Errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasi eta hamar egun balioduneko epean, ondoren adierazten diren aldez aurretiko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du kalitate-prezio erlazioari dagokionez eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak:

- Enpresariaren nortasuna eta haren jarduera-esparrua egiaztatzen dituen dokumentazioa:
    - Nortasun Agiri Nazionalaren eta agiri horren fotokopia konpultsatua aurkeztuta egiaztatuko dute beren nortasuna pertsona fisikoek.
    - Enpresa pertsona juridikoa balitz, Merkataritza-erregistroan behar bezala inskribatutako eratze- edo aldatze-eskritura aurkeztuta egiaztatu beharko du nortasuna, merkataritza-legeria aplikagarriaren arabera betekizun hori exijitzekoa denean. Betekizun hori exijigarria ez bada, eraketaren edo aldaketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo eraketa-egintza, zeinetan jasotzen baitira jarduera erregulatzeko arauak; beharrezkoa bada,

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

erregistro ofizialean inskribatuak Pertsona juridikoak lizitazio honen esleipendun izan ahalko dira, baldin eta prestazioak jasota baldin badaude beren berezko helburu, xede edo jarduera-esparru gisa beren estatutu edo eratze-arauetan; alderdi hori egiaztatuta geratu behar da aurkeztutako dokumentazioan.

Aipatutako agirien jatorrizko aleak edo kopia konpultsatuak aurkeztu behar dira, indarrean dagoen legeriaren arabera egiazkotzat jotzen direnak.

- Ordezkagarritasuna egiaztatzen duten agiriak, hala badagokio:

  - Beste baten ordez aurkezten diren edo proposamenak sinatzen dituztenek, horretarako nahikoa ahalorde dutela egiaztatuko dute.
  - Lizitatzailearen ordezkaritza duen pertsonaren datuak; ahalorde bidez egiaztatu beharko da.

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzearen frogagiriak.

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta teknikoa edo profesionala. Lizitazio honi dagokionez, ondoren adierazten direnen bitartez egiaztatuko da aipatutako kaudimena:

  - **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:**

    - Kaudimen ekonomiko-finantzarioa egiaztatzeko arrisku profesionalengatiko 6.000 euroko erantzukizun zibileko aseguru bat dagoela egiaztatzen duen frogagiri edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko da.

  - **Kaudimen tekniko eta profesionala:**

    - Elikagaien manipulatzaile txartela edo titulua aurkeztu beharko da.

    - Lanbide esperientzia egiaztatzeko, lan-ibilbidearen ziurtagiria aurkeztuta egiaztatuko da.

- Behin betiko bermea eratu izanaren frogagiria

- Atzerriko lizitatzaileek adierazpena aurkeztuko dute, zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen gorabeheretarako, Espainiako edozein lege-arlotako Epaitegiren eta Auzitegiren jurisdikziopean jartzen direla esanez, eta, hala balegokio, dagokiekeen atzerriko jurisdikzio-foruari berariaz uko eginez.

- Baldintza agiri honetako 30 baldintza administratiboaren 17. puntuan betetzeko, esleipendunak egiaztatu egin beharko du erantzukizun zibileko aseguru poliza kontratatua duela, eta horren gutxieneko estaldura 300.000 eurokoa dela gertakizuneko. Estaldura horrek indarrean egon beharko du,

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

kontratuak eta balizko luzapenek irauten duten denbora guztian.

2. Aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak edo omisioak ikusiko balira, lizitatzaileari jakinaraziko litzaioke, eta hiru egun balioduneko gehienezko epea emango litzaioke akats edo omisio horiek kontratuaren arduradunaren aurrean zuzen ditzan.

3. Errekerimendu hori ez bada betetzen dokumentazioa aurkezteko emandako epean, lizitatzaileak bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da eta, kasu horretan, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeran, hurrengo postuan geratu den lizitatzailearen dokumentazioa aztertuko da.

4. Dokumentazioa aurkezteko eta, hala badagokio, akatsak edo omisioak zuzentzeko epea amaitu ondoren, dagokion esleipen-proposamena aurkeztuko da.

24. KLAUSULA. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA.

Kontratua formalizatzen denean burutuko da.

Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehazki egokituko den administrazio-dokumentu batean formalizatu beharko da, eta gainera eskritura publikoan formalizatu ahal izango da kontratistak hala eskatzen badu, sinaduratik eratortzen diren gastuak haren kargura izanik. Kasu horretan, kontratistak Administrazioari aipatu dokumentuaren kopia legitimatu bat eta kopia arrunt bat entregatu beharko dizkio formalizatzen denetik kontatzen hasi eta hilabeteko epearen barruan.

Kontratua formalizatu behar da, beranduenez ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 151. artikuluan aurreikusitako moduan lizitatzaileei esleipenaren jakinarazpena helarazten zaien egunetik zenbatzen hasi eta hamabost egun balioduneko epearen barruan.

SPKLren 153.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratua adierazi den epearen barnean formalizatu ez bada, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio (BEZik gabe) zigor gisa, lehenik eta behin betiko bermearen kontura horrelakorik eratu bada, SPKLren 71. artikuluko 2. idatz-zatiaren b) letran ezarritakoa alde batera utzi gabe.

25. KLAUSULA. UKO ETA ATZERA EGITEA.

Kontratazio-organoak erabakitzen badu esleipen-prozedurari uko egitea edo deialdiaren xede den kontratua ez esleitzea edo egitea erabakitzen badu, erabaki horren berri emango die izangaiei edo lizitatzaileei.

Kontratua formalizatu aurretik erabaki ahal izango du kontratazio-organoak kontratua ez esleitzea edo egitea, edo prozedurari uko egitea. Kasu horietan,

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

egin dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie lizitazioan parte hartzeko gai diren izangaiei edo lizitatzaileei, baldin eta gastu horiek behar bezala justifikatuta baldin badaude eta, hori horrela izan ezean, Administrazioaren ondare-erantzukizuna kalkulatzeko erabiltzen diren balorazio-irizpideen arabera, administrazio-prozedura erkidearen tramiteen bitartez.

Interes publikoko arrazoiengatik bakarrik erabaki ahal izango da kontratua ez esleitzea edo egitea, eta behar bezala justifikatu beharko dira arrazoiok espedientean. Kasu horretan, ezin izango da xede bereko beste lizitaziorik sustatu, baldin eta erabakiaren oinarri gisa alegatutako arrazoiek irauten badute.

Prozedurari uko egiteko erabakia kontratua prestatzeko arauen edo esleipen-prozedura arautzen duten arauen zuzen ezin daitekeen arau-hauste batean oinarrituta egon behar da, eta espedientean justifikatu egin beharko da arrazoia. Prozedurari uko egiteko erabakia hartzeak ez du eragotziko berehala beste lizitazio-prozedura bat hastea.

VI.- KONTRATUA GAUZATZEA

26. KLAUSULA.- KONTRATUA GAUZATZEA

- Zerbitzuaren betearazpena kontratua sinatzean hasiko da.
- Zerbitzua ematen hasi aurretik, esleipendunaren esku jartzen diren ekipamendu, instalazio, altzari eta gainontzeko tresnen inbentarioari dagokion aktan jasoko da. Bertan beren egoeraren berri emango da, eta bi alderdien adostasuna beharko du.

  Halaber, kontratua amaitzen edo hausten denean, akta jasoko da, eta enpresa esleipenduna behartuta dago zerbitzua ematen hasi zenean bere esku jarri ziren ondasunak egoera onean uztera edota berriak jartzera. Bestela, Udalak esleipendunak jarritako bermea erabiliko du ondasunak konpondu edota berriak erosteko.
- Kontratu honetako bermearen epemugari dagokionean, hilabeteko epearen barruan erantzun beharko dio esleipendunak ondasunak egoera onean uzteko edo berriak jartzeko daukan betebeharrari.
- Kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua betetzearen arriskuak.
- Kontratuaren epea bukatzean, tabernaren ustiapenaren datu ekonomikoak aurkeztu beharko dizkio udalari hilabeteko epean
- Agiri honetan jasotako klausulen arabera betearaziko da kontratua, bai eta espedienteari atxikitako espezifikazio teknikoen arabera ere, eta betiere, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean. Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.
- Kontratistari edo bere mendeko pertsonei lepora dakizkiekeen ekintzengatik edo ez-egiteengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen denean, Administrazioak kontratuaren martxa ona lortzeko edo

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

berreskuratzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea agindu dezake.

27. KLAUSULA.- ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK.

Kontratu honen araubide juridikotik eta Baldintza Teknikoetatik eratorritako betebehar orokorrez gain, ondoko betebeharrak ere egongo dira berariaz:

1.- Baldintza administratibo Berezien Agirian eta Baldintza Teknikoetan aurreikusita dagoen bezala burutzea kontratua eta administrazioak horiek interpretatzeko kontratistari emandako jarraibideak kontuan hartuta. Esleipendunak ezingo dio kontratua, ez osorik ez zatirik, beste pertsona bati laga, Administrazioaren berariazko baimenik gabe.

2.- Kontratuaren xedea eta bertan ezarritako mugak errespetatzea, behar bezala betetzen dela bermatuz une oro.

3.- Esleipendunak zergadun modura alta emanda egon behar du Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta bere zerga-betebeharrak kitatuta edukiko ditu, baita Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergarena ere.

4.- Lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasun gaietan indarrean dauden xedapenak betetzea, kontratuaren xedearen burutzapenean jardungo duten langileekiko. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Kontratatutako eta zerbitzuari atxikitako langileek ez dute inolako lan harremanik izango Berriatuko Udalarekin.

Zerbitzua ematen ari diren langileak identifikatuta egon behar dute une oro. Berriatuko udalak eskatuz gero, kontratuaren indarraldian edozein unetan egin dezakeena, esleipenduna behartuta egongo da bere langileen lan- kontratuak eta Gizarte Segurantzako afiliazio eta kotizazio agiriak aurkeztera. Hori horrela, agiri horien kopiak izango dituzte gizarte zentroan bertan.

5.- Esleipendunak zerbitzua behar bezala eskaintzeko behar dituen giza baliabideak jarriko ditu, eta bere gain hartuko ditu langile horien mendekotasun-harremanak sortutako kostu guztiak. Langile horiek ez dute inolako lotura administratibo edo laboralik izango Berriatuko Udalarekin, eta, horrenbestez, honek ez du inolako erantzukizunik izango enpresak langileekiko dituen betebeharrak betetzen ez baditu.

Esleipenduna izango da, beraz, hitzartutako zerbitzua emateko kontratatutako langileen nagusi edo enpresari, eta, beraz, langileak kontratatu behar baditu, indarrean den legerian aurreikusitako formuletakoren bat erabiliko du nahitaez, baldintza-agiri honetan aurreikusitako edozein arrazoi dela-eta ustiapena iraungitzean kontratu horiek automatikoki bukatutzat emateko.

Eskaintzan eskaini dituen baldintza guztiak bete beharko dituzte langileek une oro. Aldaketarik egonez gero, Berriatuko Udalari jakinarazi beharko dio ziurtatuz, agiri bidez, langile berri horrek ordezkatzen duen langilearen baldintzak, gutxienez, betetzen dituela.

6.- Kontrataturiko lanak berak egitea, kontratua beste bati laga edo azpikontratatu ezin izango delarik, SPKLren 214 eta 215 artikuluek xedatzen

dutena kontutan izanik.

7.- Zerbitzua emateko behar diren lizentzia edo baimen administratiboak eskuratzea esleipendunaren ardura izango da eta bere izenean eskatu beharko ditu.

Halaber, zerbitzu ezberdinen funtzionamendu- orduak, prezioen zerrendaren erakusketa, eta zerbitzuaren osasun eta higieneari buruzko baldintzak arautzen dituen araudiak errespetatu beharko ditu kontratistak.

8.- Esleipendunak arretazko zerbitzua eman behar du beti, bai eskaintzen dituen produktuetan bai langileen janzkeran. Ikus-entzunezkoak edo antzeko tresnak erabili behar baditu, graduatu egin beharko ditu, erabiltzaileen eta, oro har, jendearen erosotasunaren arabera, beti ere gizalege arauen barruan eta indarrean den legerian ezarritako mugen baitan.

9.- Esleipendunak Berriatuko Udalak eskaintzen duen hondakinen bilketa selektiboko zerbitzua erabiliko du, hondakin organikoarena barne.

10.- Esleipendunak energia elektrikoaren kontratazioa egiterakoan, energia berriztagarri iturria duen hornidura elektrikoa bermatuko beharko du burutu beharko duen energia hornitzailearekin burutu beharko duen kontratuan.

11.- Esleipendunak funtzionamendu onean eta kontserbazio-egoera hobe ezinean edukiko ditu ustiatzen dituen lokalak eta bertako instalazioak. Horrek esan nahi du bere kontura izango direla helburu horretarako beharrezko diren konponketa guztiak, baldin eta konponketa egiteko arrazoia jardueraren ohiko funtzionamendutik etorri bada.

12.- Esleipendunak ezingo du obrarik egin, Berriatuko Udalak horretarako baimenik eman gabe.

13.- Esleipendunak une oro utziko dio Berriatuko Udalari zerbitzuaren ikuskapen tekniko eta ekonomikoa egiten, helburua izanik frogatzea zerbitzu horren funtzionamendua bat datorrela baldintza-agiri hauetan eta indarrean diren legeetan xedatutakoarekin. Horretarako, esleipena jakinarazi eta ondoren emandako helbidea baliagarritzat hartuko da, jakinarazpenen eraginetarako.

14.- Esleipendunaren kontura izango dira kontratuaren helburu den jarduerari dagozkion zerga, tasa eta tributu guztiak (estatukoak, erkidegokoak eta tokikoak).

15.- Jakien Manipulatzaile titulua edukitzea, zerbitzua ematen hasi baino lehen.

16.- Kontratistaren kontura izango dira lizitazio honen iragarkiari edo iragarkiei dagozkien gastu eta zergak, eta baita ere kontratuaren formalizazio gastuak eta arlo hauetan legeriak ezartzen dituen beste edozein.

17.- Kontratuaren burutzapenak beharrezko dituen eragiketen ondorioz eraikinari zein hirugarrenei egin zaizkien kalte-galeren arduraduna kontratista izango da, SPKLko 196. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Horretarako, kontratua izenpetu aurretik, esleipendunak egiaztatu egin beharko du erantzukizun zibileko aseguru poliza kontratatua duela, eta horren gutxieneko estaldura 300.000 eurokoa dela gertakizuneko. Estaldura horrek indarrean egon beharko du, kontratuak eta balizko luzapenek irauten duten denbora guztian.

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

Urtero, poliza honen kopia bat igorriko dio kontratistak udalari.

Esleipenduna egindako lanen eta prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoen arduraduna izango da, baita kontratuaren exekuzioan izandako hutsegiteek, akatsek, metodo ez egokiek edo ondorio ez egokiek administrazioari edo hirugarrenei eragin diezaieketen ondorioen erantzule ere. Salbuetsita geldituko da eragindako kalteak Administrazioaren agindu baten edo honek ezarritako baldintza baten eragin zuzena denean.

18.- Kontratatutako zerbitzuak direla eta enpresa esleipendunak ezagutu ditzakeen datuak isilpekoak dira eta hauen nortasuna eta sekretua gorde beharko du. Isiltasun profesional hori urratzeagatik Berriatuko Udalari eta beste pertsona batzuei eragindako kalteengatik erantzun beharko du.

Esleipendunak data pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa bete beharko du, bereziki hartako 12. Artikuluan adierazitakoa.

Enpresa esleipendunak ezingo ditu kontratua dela- eta eskuratu ditzakeen izaera pertsonaleko datu automatizatuak erabili utzitako helburua ez den beste baterako, ezta beste norbaiti gordetzeko utzi ere.

Kontratua bete ondoren, izaera pertsonaleko datuak Berriatuko Udalari itzuli beharko dizkio.

19.- 1/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoak, ezarritakoa bete beharko du.

20.- Kontratazio-epea amaituz gero, zerbitzua eskaintzen jarraitzea, hurrengo esleipena gauzatu arte, Udalak beharrezkotzat jotzen badu, dagokion saileko teknikoen proposamenaren arabera.

21.- Berriatuko Udalak agindutako zerbitzuko aldaketak bere gain hartzea, indarrean dagoen legeriak adierazitako baldintzetan, indemnizazio eskubiderik gabe.

22.- Zerbitzua eskaintzeko onarturiko egutegi eta ordutegia bere gain hartzea, eta zerbitzuaren funtzionamendu egokiaz arduratzea.

23.- Eskatzen zaion idatzizko informazioa ematea, batik bat, ustiapen kontuekin eta kudeaketa ekonomikoarekin zerikusia duena.

Urteko, Udalari ondorengoa jakinarazi behar zaio: Galdu-irabazien kontua eta balantzea.

Esleipendunak betebeharren bat beteko ez balu, Berriatuko Udalak betebehar horiek guztiak betetzea eskatzeko edo kontratua desegiteko aukera izango du.

28. UDALAREN BETEBEHARRAK

Udalaren betebeharrak ondorengoak izango dira:

1.- Lokala, instalazioak, etxe-tresna elektrikoak eta gainerako tresnak egoera onean ematea, Udalak errentariari emango dion inbentarioan ezarritakoari lotuta.

2.- Kontratua amaitzean edo deseustatzean, ziurtatzea Udalari egoera onean

eta garbi bueltatzen zaizkiola lokalak, instalazioak, makineria, altzariak eta gainerako tresneria guztia –inbentarioan sartzekoak eta sartzeko ez direnak–.

3.- Kontratistaren kudeaketaren fiskalizazioa egitea, eta horren eraginerako, behar diren aginduak emango dizkio Berriatuko Udalaren dagozkion zerbitzuek, ohi denez eta behar bezala eman dezan zerbitzua, kontratuan datozen klausulen arabera.

4.- SPKLren 190 artikuluaren arabera, kontratua interpretatzea, kontratua betetzeak sortzen dituen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, hura suntsiarazteko erabakia hartzea eta erabaki horren ondorioak zehaztea. Hori guztia, SPKLn xedatutako baldintzen eta ondorioen mugen barruan eta haiei lotuta.

5.- Administrazioaren eta esleipendunaren artean sortzen diren gorabeherak aldebakarreko moduan erabaki eta betearaztea.

6.- Kontratua suntsiaraztea edota amaitutzat ematea, Baldintza-Orri honetan eta SPKLren 211 eta 295 artikuluetan aurreikusitako kasuetan eta 212 eta 296 artikuluetan zehazturiko ondorioekin.

7.- Orri honetan datozen gainerakoak, eta Baldintza Teknikoetan arautzen direnak Udaleko kontratazio-organoak hartzen dituen erabakiek amaiera emango diote administrazio- bideari eta une beretik izango dira betearazleak.

29. KLAUSULA. BETEBEHARRAK: LAN-ARLOKOAK, GIZARTE- SEGURANTZAKOAK ETA BEREZIAK.

Kontratistak lanaren eta gizarte-segurantzaren alorrean indarrean dagoen araudia bete behar du nahitaez. Era berean, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, pertsona desgaituen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onesten duena, 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa, 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuen Araudia, eta kontratua egikaritzen den bitartean promulgatzen diren arauak bete beharko ditu nahitaez.

Enpresa kontratistak, kontratua egikaritzen den aldi osoan, Bizkaiko ostalaritzako lan-hitzarmenean ezarritako arauak eta baldintzak bete beharko ditu nahitaez.

Kontratistak, orobat, zuritu beharko du, dagozkion datuak azpikontratatutako enpresa orori eskatu eta gero, ezen enpresa azpikontratatuak ere, zerbitzua gauzatzean, lan eta gizarte segurantza arloan indarrean dauden xedapen horiek aplikatzen dituela eta, zehazkiago, Ostalaritzako Bizkaiko Hitzarmen Kolektiboak jasotzen dituen lan baldintzak eta laneko segurtasun eta osasuneko betebehar guztiak aplikatzen dituela.

Betebehar horiek ez betetzearen ondoriozko erantzukizun guztiak kontratistari egotziko zaizkio. Gainera, aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko

dira kontratua gauzatzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez betetzearen larritasunaren araberakoak, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren 100eko 10.

30. KLAUSULA.- KONTRATUA GAUZATZERAKOAN BETE BEHARREKO HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua.

Azaroaren 19ko 179/2019 dekretuak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, 4. ataleko 36. artikuluan jasotzen du Euskadiko toki-entitateek egiten dituzten kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dituztela, batetik herritarrei bermatzeko toki-erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza baldintza berberetan jaso ahal izatea kontratu bidezko jarduerak eta zerbitzuak eta bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza ofizialtasunaren erregularizazioa betetzeko.

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen du, enpresa esleipendunaren langileek zuzeneko harremana izango dutelako zerbitzu jasole euskaldunekin. Administrazioari dagokio zerbitzu jasoleen hizkuntza eskubideak bermatzea. Horrenbestez, administrazioak bermatu behar du enpresa esleipendunak zerbitzua euskaraz ere eskaintzeko gaitasuna baduela.

Hizkuntza baldintza hauek kontratuaren funtsezko betebehar izaera dute, eta horiek urratzeak kontratua bertan beherauztea Sektore Publikoko Kontratuaren Legeari jarraituz.

Zerbitzuan erabiliko den hizkuntzari buruz:

Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematerakoan, hurrengo baldintzak bete beharko dira:

1) Hizkuntza paisaia:

Zerbitzua ematean enpresa esleipendunak jartzen dituen errotulu, seinale, ohar, kartel eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz idatziko dira ondorengo kasu hauetan:
- Hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.
- Mezuak piktograma bidez lagundurik direnean eta haren bitartez ulergarriak direnean.
- Oso zabalduak dauden hitzetan (musika eskola, kultur etxea ...).Aurreko hiru kasuak ezinezkoak direnean, ele bitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere Udalarekin aldez aurretik adostuta.
- Musika eta telebista jartzen badira, ezinbestekoa izango da musika eta

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

telebista euskaraz tartekatzea.

2) Zerbitzu jasoleekin erabiliko den hizkuntzari buruz.

- Herritar euskaldunekiko ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan…) eta idatzizkoa (menua, karta, oharrak, abisuak, ordutegiak...) euskaraz izango da.
- Herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea.
- Herritar erdaldunekiko idatzizko harremanean, euskarari emango zaio lehentasuna.

3) Enpresaren eta Udalaren arteko harreman hizkuntzari buruz.

Enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko —bilerak, kontsultak...— nahiz idatzizko harremanak —fakturak, txostenak...— Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz. Ondorioz, nahitaezkoa izango da enpresa esleipendunak Udalarekin harremanetan aritzeko izendatuko duen pertsona elebiduna izatea. Eta Udalak jarraipena egingo dio behin zerbitzua esleituta.

Hizkuntza baldintzen jarraipenari eta ez betetzeari buruz:

Udalak jarraipena egingo du zerbitzu hau emateko eskatu diren hizkuntza baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Hizkuntza baldintza horiek urratzeak zigor sistema aplikatzea ekar lezake. Sektore Publikoko Legearen 192. artikuluari jarraituz. Behin eta berriz urratzeak, berriz, kontratua bertan behera uztea ekar lezake, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. artikuluari jarraituz.

31. KLAUSULA. UDALAREN ESKUMENAK

Udalari dagozkio hainbat eskumen, hala nola kontratua interpretatzea, kontratuaren betearazpenak eskaintzen dituen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiak direla-eta aldatzea, kontratua egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna deklaratzea, kontratuaren egikaritzapena etetea, kontratuaren suntsiarazpena erabakitzea eta suntsiarazpen horren ondorioak zehaztea, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako mugen barruan eta eskakizun eta ondorioei jarraikiz.

Era berean, kontratua egikaritzen den bitartean kontratistek garatutako jarduerak ikuskatzeko ahalmenak ditu kontratazio-organoak, aipatu Legean kontratu mota bakoitzerako ezarritako moduan eta mugekin.

Aurreko artikuluan ezarritako eskumenei buruzko erabakiak hartzeko gauzatzen diren prozeduretan kontratistari entzunaldia eman beharko zaio.

Hartarako emandako erabakiek administrazio-bidea agortuko dute, eta berehala betearazi beharrekoak izango dira.

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

32. KLAUSULA.- KONTRATUA ALDATZEA.

Kontratua formalizatu ondoren, eta tartean interes publikoko arrazoiak badaude, kontratua aldatzea erabaki ahal izango du kontratazio-organoak, alde batera utzi gabe kontratistaren ondorengotzari, kontratuaren lagapenari, prezioak berrikusteari eta gauzatze-epea betetzeari dagokienez 2017ko SPKLk dioena. Interes publikoko arrazoiengatik soilik aldatu ahal izango dira administrazio-kontratuak, 2017ko SPKLren 203. artikuluan eta hurrengoetan adierazitako baldintzetan eta 2017ko SPKLren 191. artikuluan araututako prozeduraren arabera, 2017ko SPKLren 207. artikuluan ezarritako berezitasunekin.

33. KLAUSULA.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA.

Besteak beste, 2017ko SPKLren 211. eta 294. artikuluetan adierazitako arrazoiengatik suntsiarazi ahal izango da kontratua.

34. KLAUSULA.- ESKUMENEKO JURISDIKZIOA.

Kontratu honen ondoriozko gai eztabaidatsuak kontratazio-organoak ebatziko ditu, eta hartzen dituen erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari .

Administrazio-bideari amaiera jartzen dioten eta berehala betetzekoak diren egintzak errekurritu egin ahal izango dira, hilabeteko epean berraztertze errekurtsoaren bitartez (udalean bertan) edo bi hilabeteko epearen barruan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarrita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako moduan.

Auziren bat egongo balitz, esleipendunak bere foru jurisdikzionalari espresuki uko eginez, Bizkaiko Epaitegi eta Auzitegitara jotzeko konpromisoa adierazten du.

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

I. ERANSKINA - ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

……..jaunak/andreak, helbidea ……..…….eta ……..zenbakidun NAN agiria duenak, norbere izenean edo ……. gisa (adierazi ordezkaritzaren ahalmenak; administrari bakarra, apoderatua…), helbidea …….. eta …….zenbakidun IFK duen …….enpresaren ordezkari gisa, lizitazioan parte hartzeko, Berriatuko Udalaren aurrean,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU, BERE ERANTZUKIZUNPEAN

LEHENENGOA. **<u>BERRIATUKO ZENTRALA TABERNAREN ZERBITZU EMAKIDA</u>** kontratazioan parte hartzera doala.

BIGARRENA. 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen espainiar ordenamendu juridikorako transposizioa egiten duen Sektore Publikoko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 140. artikuluaren lehenengo atalak zerbitzu-kontratuaren esleipendun izateko exijitzen dituen aurretiazko eskakizun guztiak betetzen dituela; honako hauek, hain zuzen ere:

- Dagokion sailkapena duela edo exijitzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko eskakizunak betetzen dituela.
- Pertsona juridikoa bada, sozietatea baliozko moduan eratuta dagoela eta, sozietatearen helburuaren arabera, lizitaziora aurkez daitekeela, eta adierazpenaren sinatzaileak dagokion ordezkagarritasuna duela proposamena aurkezteko.
- Ez duela bere kabuz edo hedapenez kontratatzeko debekurik, SPKLaren 71.3 artikulua aplikatzearen ondorioz, eta indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
- Atzerriko enpresen kasuan, zuzenean edo zeharka kontratutik sor daitezkeen gorabeheretarako, Espainiako edozein lege-arlotako Epaitegiren eta Auzitegiren jurisdikziopean jartzen direla, eta, hala balegokio, lizitatzaileei dagokiekeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko eginez.

- Honako haudela jakinarazpenetarako helbide elektronikoa:

……

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

HIRUGARRENA. Adierazpen honen bigarren atalean aipatzen diren agiriak badituela eta horiek baliozkoak direla egiaztatzeko konpromisoa hartzen duela, esleipendun gisa proposatzen badute edo horretarako errekerimendua egiten dioten edozein unetan.

Eta hori jasota gera dadin, honako adierazpen hau sinatzen dut.

……n, 2023ko .....ren ....(e)(a)n.

Sinadura (sinadura eta enpresaren zigilua)

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

II. ERANSKINA: PROPOSAMEN-EKONOMIKOAREN EREDUA (C (C1) GUTUN-AZALA)

Nik, ... jaunak (helbidea: ....PK:....., NAN: ....., telefono-zenbakia: ....., eta posta elektronikoko helbidea: .....) prozedura osoa Udalari jakinarazteko, nire gaitasun juridikoaren eta jarduteko nire gaitasunaren jabe oso izanik, nire izenean (edo ……. jauna/andrearen PK: ……, telefono-zenbakia: ……., eta NAN edo IFK: …….. -bata ala bestea, pertsona fisikoa ala juridikoa izan- ordezkari gisa), **BERRIATUKO ZENTRALA TABERNAREN ZERBITZU EMAKIDA,** kontratatzeko Berriatuko Udalak deitu duen lehiaketaren berri izanik, honako hau

ADIERAZTEN DUT:

1) Zerbitzu prezio honetan egiteko konpromisoa hartzen dudala:

lizitazio-prezioa (BEZik gabe)	**EGITEN DUEN ESKAINTZA: PREZIOA BEZik GABE**
100,00	

Eskaintza ekonomikoa, BEZik gabe .....EURO dela

2.- Kontratua esleitzen badidate, eskatzen diren berme osagarrien ekarpena egiteko konpromisoa hartzen dudala.

3.- Kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren baliabide pertsonalak konpromisoa hartzen dudala; horretarako, betebehar hori onartzen dut eta betebehar hori funtsezkotzat hartzen dut. Halaber, konpromisoa hartzen dudala zerbitzu osoa egindako eskaintzaren arabera egikaritzeko.

4.- C gutun-azalaren “pdf” agiriari pasahitza jarri baldin badiot, konpromisoa hartzen dut eskaintza ekonomikoak irekitzen diren egunean Kontratazio Mahaiari C gutun-azala irekitzeko behar den pasahitza emateko, gutxienez, C gutun-azala ireki baino 5 minutu lehenago.

Eta hori jasota gera dadin, honako adierazpen hau sinatzen dut.

……n, 2023ko .....ren ....(e)(a)n.

Sinadura (sinadura eta enpresaren zigilua)

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

III. ERANSKINA: GAITASUN PROFESIONALA ETA EGOERA PERTSONALAREN EREDUA (C (C2, C3 eta C4) GUTUN-AZALA)

Nik, ... jaunak (helbidea: ....PK:....., NAN: ....., telefono-zenbakia: ....., eta posta elektronikoko helbidea: .....) prozedura osoa Udalari jakinarazteko, nire gaitasun juridikoaren eta jarduteko nire gaitasunaren jabe oso izanik, nire izenean (edo ……. jauna/andrearen PK: ……, telefono-zenbakia: ……., eta NAN edo IFK: …….. -bata ala bestea, pertsona fisikoa ala juridikoa izan- ordezkari gisa), **BERRIATUKO ZENTRALA TABERNAREN ZERBITZU EMAKIDA,** kontratatzeko Berriatuko Udalak deitu duen lehiaketaren berri izanik, honako hau

ADIERAZTEN DUT:

1) Konpromisoa hartzen dudala Zentrala Tabernaren zerbitzua emateko hurrengo pertsonak izango direla langileak eta hurrengo titulua dute:*

Titulua	Puntuak**	NAN
Sukaldaritzan edo errestaurazioko arloko unibertsitate-tituluak	5,00	
Lanbide-hastapeneko ikastegietan egindako ikasketen goi mailako titulazio ofiziala.	4,00	
Lanbide-hastapeneko ikastegietan egindako ikasketen erdi mailako sukaldaritza edo errestaurazio prestakuntza titulazio ofiziala eta sukaldaritza edo errestaurazioko 3. Mailako gaitasun ziurtagiriak	3,00	
Sukaldaritza edo errestaurazioko 1 eta 2. Mailako gaitasun ziurtagiriak.	2,00	
Erakunde publiko edo ofizialek emandako edo homologatutako 25 ordutik gorako sukaldaritza edo errestaurazio prestakuntza jarduera	0,30	

** Oharra: Tituluen kopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira titulazioak egiaztatzeko.*
*** Puntuak titulu bakoitzeko.*

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

2) Konpromisoa hartzen dudala Zentrala Tabernaren zerbitzua emateko hurrengo pertsonak izango direla langileak (aurreko puntuan jarritako berdinak izan beharko dute) eta hurrengo lanbide-esperientzia dute):*.

Lanbide esperientzia	Puntuak**	Urte kopuruak	NAN
Ostalaritza establezimenduetan egindako kudeaketa lanak	8,00		
Zerbitzari, sukaldari, tabernari edo antzeko lanengatik egindako lanak	4,00		

** Esperientzia Lan-ibilbidearen ziurtagiria aurkeztuta egiaztatuko da eta ikastaroen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.*
*** Puntuak, urteko.*

3) Konpromisoa hartzen dudala Zentrala Tabernaren zerbitzua emateko hurrengo pertsonak izango direla langileak (aurreko puntuan jarritako berdinak izan beharko dute) eta hurrengo enplegu egoera dute:*

NAN	6 hilabete baino gutxiago langabezian	6 hilabete eta urtebe arteko langabezia	Urtebete baino gehiago langabezian
	5 puntu max	7,5 puntu max	10 puntu max

** Langabezia Lanbidek egingo duen dagokion ziurtagiria aurkeztuta egiaztatuko da.*

4) Konpromisoa hartzen dudala Zentrala Tabernaren zerbitzua emateko hurrengo pertsonak izango direla langileak (aurreko puntuan jarritako berdinak izan beharko dute) eta hurrengo errolda-egoera dute:*

NAN	Berriatuan erroldatua	Eskualdean erroldatua
	10 puntu max	5 puntu max

* *Berriatuan erroldatuta dagoela Berriatuko Udalak ziurtatuko du bere kabuz, aldiz, eskualdean erroldatzeko, dagokion udalerriko errolda ziurtagiria aurkeztu beharko da.*

5) Zentrala Tabernaren zerbitzu-emakidaren esleipendun moduan, hurrengo euskara maila ziurtatzen dut*:

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

NAN	C2 titulua (4. Hizkuntz eskakizuna) edo baliokidea:	C1 titulua (3. Hizkuntz eskakizuna) edo baliokidea:	B2 titulua (2. Hizkuntz eskakizuna) edo baliokidea
	20 puntu max	10 puntu max	5 puntu max

** Oharra: Euskara gaitasunaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira mailak egiaztatzeko.*

Eta hori jasota gera dadin, honako adierazpen hau sinatzen dut.
……..n, 2023ko .....ren ....(e)(a)n.

Sinadura (sinadura eta enpresaren zigilua)

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

IV. ERANSKINA -ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

……..jaunak/andreak, helbidea ……..……eta ……..zenbakidun NAN agiria duenak, norbere izenean edo …… gisa (adierazi ordezkaritzaren ahalmenak; administrari bakarra, apoderatua…), helbidea …….. eta …….zenbakidun IFK duen …….enpresaren ordezkari gisa ETA ……..jaunak/andreak, helbidea ……..……eta ……..zenbakidun NAN agiria duenak, norbere izenean edo …… gisa (adierazi ordezkaritzaren ahalmenak; administrari bakarra, apoderatua…), helbidea …….. eta …….zenbakidun IFK duen …….enpresaren ordezkari gisa

HONAKOA ADIERAZTEN DUTE

Aldi Baterako Enpresa-elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela, % …(e)ko eta % …(e)ko partaidetzekin hurrenez hurren, eta …….. jauna/andrea izendatzen dutela kontratuaren ondoriozko eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko behar adinako ahalordedun elkartearen ordezkari edo apoderatu bakar, kontratua azkentzen den arte.

Eta .....n 2023ko .....ren …..(e)(a)n egiten dugun adierazpen honekiko adostasuna erakusteko

Izp.:	Izp.:
Enpresaren zigilua	Enpresaren zigilua